



6. BEZEROEKIN HARREMANAK:

Gure enpresa online denez, ezin dugu aurrez aurreko harremana gure bezeroekin izan, honen ondorioz, era presentzial batean harremana mantentzea ezinezkoa dugu, baina bideo deien edo beste zenbait baliabideen bitartez posiblea da. Hauek izango dira gure enpresan ezarriko ditugun harreman motak:

Alde batetik, harreman automatizatua izango dugu 24 orduz egunero, hau zalantza puntualak argitzeko izango da batez ere, adibidez, aplikazioaren funtzionamenduari buruzkoak. Beste nolabaiteko zalantza konplexuagoak guk geuk argituko ditugu. Hurrengo hau enpresako telefono zenbakiaren bitartez egingo dugu, telefonoaz gain posta elektronikoz ere egin daiteke komunikazio hau edota sare sozialen bidez. Hala ere gure arreta zerbitzuak ez dira 24 ordukoak izango, gure ordutegi pertsonalera egokituak izango dira.

Horretaz gain, bezeroek harreman zuzen eta konfidentziala izango dute, hemen hainbat motatakoak izan daiteke harremanetan jartzeko bideak: bideo deia izan daiteke, chat bidezko elkarrizketa edota telefono dei baten bidez. Metodo honekin gainera, psikologoek malgutasun handiagoa izango dute beraien ordutegietan, baliteke flexibleagoak izatea kontsulta pribatu edo publikoak baino. Ondorioz, bezero eta profesionalaren artean kontsulta orduak erabakitzerakoan aukera zabalagoa izango dute.

Gainera gure zerbitzuak zenbait erakunde publiko eta pribatuei eskainiko dizkiegu, haiekin ere harreman zuzenetan egongo gara, ulertzen baitugu kontu guztien gestioa eramatea nahiko zaila dela, ondorioz lehen esa bezala era desberdinetatik kontaktuan jarri ahalko ginateke eta kudeaketarekin lagundu edota zalantzak argitu.

